

UNITATEAREN AMAIERAKO JARDUERA

Denbormalizazioa	Ordu bat
Materiala	Webguneko ariketa
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Unitateetan zehar landu dituzten herrialdeetako abestiak kokatzen ikastea.

Munduan zehar bidaia egin ondoren, abestu eta dantzatu dituzten kantuen errepasoa egingo da unitate honetan. Horretarako, kontinente bakoitzeko mapa baten bidez ikasleak talde txikitan jarriko dira eta kantu bakoitza dagokion herrialdean kokatu beharko du. Ondoren, kantu bakoitza zein herrialdeetako den asmatu beharko dute talde handian, horretarako, gomendatzen da arbel digitala izatea, edo bestela mapa bat eskura izatea.